

PARTE HARTUZ: ARGITALPEN KOLEKTIBOA

ASMOA.

Parte Hartuzeko kideen artean **liburu kolektibo bat idaztea**. Ingelesez (lehen aukeran) edo gaztelaniaz (bigarren aukeran). Aztertu beharko litzateke, aurrekoarekin batera, euskaraz ere argitaratzeko aukera. Beti ospe oneko argitaletxeetan. Taldeak diruz lagunduko luke argitalpena (beste jarduera batzutarako finantziario aukerak agortu gabe).

BALDINTZAK.

1. Parte Hartuzeko **kide guztiek edukiko dute parte hartzeko aukera, baina beti gutxienez beste kide batekin elkarlanean**, liburuaren luzera mugatuak ezina egingo bailuke ekarpen indibidualak onartzea.

2. Ziurtatu ezin den arren, asmoa izango litzateke 2021eko ekainean liburua argitaratuta edukitzea. Horrek ekarpenak entregatzeko epe zurrunik jartzera darama, eta horrela onartu behar da.

3. Liburu kolektiboak nolabaiteko **batasuna eduki behar du edukietan**. Hari eroale bat aurkitu behar da jasoko diren ekarpenen artean, eta horretarako nolabaiteko boterea aitortu beharko zaie koordinatzaile-editore lana egingo duten kideei ekarpenetan iradokizunak proposatzeko, beti liburuaren mesedean.

ARAUAK.

1. **Liburuaren gai nagusia**, ekarpenak barne hartuko dituen, orain arte gure artean lantzen aritu garena izango da: **Sakontze demokratikoa**, eta horren barruan, Berrikuntza, Esperientzia eraldatzaileak, Autoritarismoa, Euskal Herria... Modu zabalean hartu behar da gaia, gure azpitaldeetan lantzen ditugun ildoak sartu ahal izan daitezen.

2. Ekarpenak taldeko kide bi edo gehiagoren artean egingo dira. Gai nagusiarekin lotuta egongo dira, eta itxura akademikoa izango dute (gutxieneko bibliografia, eta abar). Ekarpen guztiek gure taldeko koordinatzaile-editoreen barne ebaluaketa arina pasatu beharko dute, baina baita argitaletxeak ezartzen duen kanpo ebaluaketa ere.

3. Luzera. Ekarpn kopuruak eta argitaletxearen arauak zehaztuko dute ekarpnaren luzera, baina abiapuntutzat aldizkarietarako artikulua normalen hitz muga jar daiteke, **8000 hitz inguru**.

4. Hizkuntza eta itzulpenak. Liburua ingelesez izango balitz, ekarpnaren ingelesez, gaztelaniaz edo euskaraz egingo lirateke, baina azken bi kasuetan itzultzerak bidaliko lirateke. Itzulpenaz egileak arduratuko dira, beti taldeak finantziatuta.

5. Ekarpnaren egiteko faseak eta epeak:

a) Ekarpnaren proposamena. **Apirilaren 26rako** ekarpnaren proposamenak bidaliko dira (Julen Zabaleri bidali). Atxikita doan fitxan bete behar da: egileak, behin-behineko izenburua, eta **5-10 lerrotan ekarpnaren nondik-norakoa** (ez halaberrez ekarpnaren laburpena)

b) Koordinatzaile-editoreek 10 bat egunetan ekarpnaren proposamenak begiratu, eta agian iradokizunak egingo dizkiete egileei gai nagusira hurbiltzeko.

c) Ekarpnaren planteamendua. **Maiatzaren 24rako** ekarpnaren planteamendua bidaliko da, **500 bat hitzetan**. Koordinatzaile-editoreek onartuz gero, itzultzerak bidaliko dira, eta argitaletxeari bidaltzeko balioko dute.

d) Argitaletxearen arauen arabera, pentsa daiteke **ekarpnaren eginda** egon beharke litzatekeela **irailaren 30ean**, eta koordinatzaile-editoreen oniritzia jaso ondoren, amaituta eta itzulita egon beharke dela urriaren 31rako.